

# ESKAERA

## Eilastasuna Fondoa 2009

### **PROIEKTUAREN IZENA: Méxikoko Chiapaseko Caracol 1eko Hezkuntza Autonomoaren Formatzaile kolektiboarentzako laguntza.**

<b>Tokia</b>	Chiapaseko La Realidad Karakola, Selva Fronteriza Zonaldea	<b>Bertako erakundea</b>	Junta de Buen Gobierno Zapatista <i>Hacia la Esperanza</i>
<b>Eremua</b>	Hezkuntza	<b>Eskatutakoa</b>	20,000 peso (1067 euro)

#### **Egitasmoa aurkezten duen bertako erakundea**

Junta de Buen Gobierno (JBG) zonaldeko autoritateak dira, osatzen duten udal autonomoek aukeratuak. Txandakakoak dira: Selva Fronteriza zonaldean Juntako delegatuek hilero 15 eguneko txandak egiten dituzte. Autoritate kargua ez da diruz ordaintzen, baina udal autonomoek jana ematen die.

Selva Fronterizako JBGk Caracol 1<sup>1</sup> lurraldea gobernatzen du: Lacandona oihaneko hego mendebaldeko lurretan dagoena. Lurralde osoa aberatsa da natur baliabideetan. Munduan bioaniztasun gehien duen lurraldeetariko bat da. Halaber, daukan kultur aniztasuna 5 herri indigenek ordezkatzeko dute (tojolabale, chole, tzeltale, zoque y mame), beraien hizkuntza eta kulturak bizirik mantentzen dituztenak. Mineral meategi handiak eta petrolio erreserba garrantzitsuak daude.

Gure Udal Autonomoetan<sup>2</sup> **150 komunitate indigena** daude guztira. Zonalde honetan, komunitateak txikiak dira eta oso sakabanaturik daude. Ez zegoen errepiderik ezta bestelako garraio biderik, gobernuak armadaren indarrak zonaldean sartzen errezteko, errepideak eraikitzeko programa handi bat abian jarri arte. Bide berri horiek, gu lagundu beharrean, arazo gehiago ekarri dizkigute eta ingurugiroa kaltetu.

#### **Zertan datza proiektuak**

Zonaldeko hezkuntza autonomoaren formatzaileen ardura da komunitateetako eskoletan lan egiten duten hezkuntza-promotoreak prestatzea eta gaitzea.

Zonaldean dugun hitzarmena da autoritate, koordinatzaile, formatzaile, promotore edo komisariaza bezala egiten diren lanetarako ez dela jasotzen herrietatik laguntzarik. Es por ello que las formadoras que se organizaron en crear el trabajo colectivo (en un principio con dinero prestado) de un comedor para allegarse recursos para apoyar en sus

<sup>1</sup> Karakol: Aspaldiko *Aguascalientes* ordezkatzeko duen espazio fisikoa da, helburutzat zonalde bateko komunitateen zentro politikoa izateaz gain, beraiek kanpoarekin komunikatzeko puntua izatea duena, Karakol barruan Zonalde bakoitzak dituen instantzia politikoa ezberdinak daude, besteak beste, bisitariak komunitate zapatisten errealitatearen berri emateko funtzioa duen Informazio Batzordea; JBG; eta Zaintza Batzordea, JBGen lana gainbegiratzeko funtzioa duena. Lurralde zapatistan 5 karakol daude.

<sup>2</sup> Udal Autonomoa: Beren berezko autoritateen bidez, lurralde txikiko izate politikoa bezala funtzionatzeko asmoz, elkartzen diren komunitate multzo bat da. Udal autonomoen tamaina luraren ezaugarri fisikoaren edota bestelako faktore soziologikoen arabera izaten da.

gastos. Lan-urte baten ondoren, beren kolektiboari “Construyendo el Sabor del Saber” deitu diote eta nahi dute beren jangela eraiki eta hornitu, orain arte, utzitako toki batean lan egin dute. EILASTASUNAREN dirua jangelaren espazioa eraikitzeko eta mahaiak, aulkiak eta sukaldarako tresnak erosteko erabiliko.

#### **Nori egiten dio onura zuzenean**

15 hezkuntza-formatzaile eta 6 hezkuntza autonomoaren formatzaile.

#### **Nori egiten dio onura zeharka**

Kideak diren formatzaileengandik prestakuntza jasotzen duten hezkuntza-promotore guztiei eta zonaldeko ume guztiei, modu autonomoan bizitzeko aukera izanez gero, beren lana eta erresistentziarekin jarraitu ahalko dutelako.

#### **Aurkeztutako aurrekontua**

Jangela eraikitzeko 15,000 peso eta 5,000 peso proiektuaren jarraipena egiteko erabiliko dira.

#### **Harremana eta jarraipena**

Zonaldean lan egiten duen erakunde baten bidez egingo dira: *Enlace Civil*. Honek hartzen du Stee-Eilas proiektuaren garapenaz informatzeko ardura. Komunikazioa postaz edo telefonoz izan daiteke eta hemengo denok oso pozik egongo ginateke zuek gure komunitateak bisitatzeko eta proiektua ezagutzeko aukera izango bazenute.